

## ZER DA BAKQ?

---

Pertsona fisikoak identifikatzeko bitarteko bat da, autentifikatzeko eta sinadura elektronikorako. Honako osagai hauek ditu:

- Erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin bat datorren identifikatzaile bat.
- Pasahitz bat. (Bak bitartekoarekin partekatua)
- Koordinatuen jokoa, 16 posiziokoa (2021eko otsailera arte) edo SMS bidez telefono mugikorrera bidalitako kode bat > HORREK BEREIZI ETA SEGURUAGOA EGITEN DU!
- Eta ziurtagiri kualifikatu bat, biltegi zentralizatu batean jaulkia, sinatzeko egintzetarako balioko duena.

**Izatez, Bak da, segurtasun-elementu bat gehitu zaiona: sms kodea. Eta kontsiderazio juridiko handiagoko "hodeiko" ziurtagiri bat.**

- Zenbait kontzeptu:
  - **BAKQ** ere eskatu egin behar da eta, gainera, jaulki egiten da, sinadura elektronikorako ziurtagiri baten sorkuntza lotuta baitauka, baina:
  - Ziurtagiri kualifikatua denez, **IDENTIFIKAZIO PRESENTZIALA** eskatzen du, edo identifikazio elektronikorako beste bitarteko baliodun baten bidez egina.
  - Halaber, **BAKQ** jaulkitzeaz eta aktibatzeaz hitz egiten dugu haren erabilera prestatzeko abian jartzean.



---

## ESKABIDE-INPRIMAKIA ETA ERREGISTROA

---

Bete eskatzailearen harremanetarako datuak. Baldintza hauek bete behar dituzte:

- Helbide elektronikoa eta telefono mugikorra nahitaezko datuak dira.
- Helbide elektronikoa, telefono mugikorra bakarria izan behar dute pertsona bakoitzarentzat.



## BAKQ JAULKITZEA

---

Eskatzeak ez du esan nahi BakQ daukagunik. Pertsona bakoitzak 4 urrats egin beharko ditu jaulkitzea eta aktibatzea osatzeko.

Posta elektronikoaren bidez koordinatuekin batera jasotzen den esteka batetik hasten da prozesua:

1. Datuak egiaztatu eta SMS bidez jasoko dugu pasahitza.
2. Pasahitza aldatu behar dugu. Gutxienez digitu bat eta letra bat eta 8 posizio edukiko dituen pasahitz bat adieraziko dugu.
3. Lehenengoz autentifikatu eta erabiltzeko terminoak eta baldintzak onartuko ditugu.
4. Ziurtagiri kualifikatua eta Bak bitartekorako kualifikatu gabea sortuko dira.

